

#### **4. MAHASGINTZA ETA ENOLOGIA BOLETINA / 2021-eko UZTAILA.** **IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK**

- **Internet bidezko asteroko oharrak :**
- [http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=5505&Idioma=EU](http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU)
- **Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharrak (Maiatzaren lehen astetik aurrera): 94-4066879**
- **Mahasgintza eta enología boletina**
- **SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinaren lehen mailako infekzioa, lehen orbanaren topaketa, txingorra...)**

Uztailak 26an gagozlarik, garai honetako egoera fenologikoetan (ilar tamaina eta mordoaren itxiera) gorrina eta zurinaren infekzio barriak gertatu daitezke mordoetan. Horrela babestuta mantendu beharko dira mahastiak patogeno hauen kontra batipat kondizio meteorologiko aproposak badira hauen bilakaerarako.

Oraingo egoera fenologikoetan kontutan hartu beharko dira honako patogeno hauek:

**GORRINA:** orain arte gaixotasunaren sintomak ikusi izan dira orri eta mordoetan baina infekzioak orokorrean arinak izan dira. Era honetan , gaur egun gorrinaren sintomak ikus daitezke landaketetan baina kalteak ez dira deigarriak. Dana dala ta kontutan izanda gaixotasun honen ezaugarriak, egin beharreko gomendioa hauxe: adi egon, landaketak aztertu ta tratamenduak barriztu landaketaren aurreko behaketetan eta esperientzietan oinarrituta.

Kontrola: une honetan ta heltzearen hasiera arte Tratamendu Gidako **M2 taldeko fungizida sarkorrak** erabiltzea gomendatzen da. Produktu hauek 2 egunetan onddoa gelditzeko edo “stopante” izateko gaitasuna dute behin infekzioa gauzatu dala, dana dan, prebentiboki erabiltzen badira beraien eraginkortasuna altuagoa izan daiteke. Produktu hauen persistentzia 10-12 egun ingurukoa da, baina gaixotasunaren presioa oso altua eta landarearen hazkundera oso handia bada tratamenduen arteko tartea 2 egunetan murriztu beharko da.

**OIDIOA/ ZURINA:** orain arte gaixotasunaren sintomak ikusi izan dira landaketa batzutan baina eragina bajua dalarik. Dana dala, ilar tamaina–mordoaren itxiera egoera fenologikoak oso sentikorrek dira gaixotasun honekiko. Kondizio aproposak egotekotan edota gaixotasunaren lehen sintomak ikustekotan, erabili 2021eko Tratamendu Gidako **O taldeko zurinaren kontrako fungizidak**. Arreta berezia aurreko urteetan kalteak izan diren partzeletan.

**BOTRITISA:** Babestu bereziki mordoak gaixotasun honekiko batipat hezetasun altuko egoera eta euriak egoten badira. Garrantzitsua da mordoak itxi baino lehen tratamendua botatzea. Erabili 2021eko Tratamendu Gidako **B taldeko botritisaren kontrako fungizidak**.

**MORDOAREN SITSIA:** Gure mahastietan ez da arazo handirik insekto honegaz. Tratamendua egin bakarrik mordoetan larbak ikusten badira. Ekainaren erdialdetik aurrera, feromonen tranpen harrapaketak oso baxuak dira.

**ARMIARMA HORIA** (*Eotetranychus carpini*) eta **ARMIARMA GORRIA** (*Panonychus ulmi*). Izurrite hau ekainatik hona hainbat landaketetan ikusi izan da. Bereziki akarizidatan, gai aktibo ezberdinak **tartekatzea** gomendatzen da.

**LANDAKETA LANAK.** **Udako kimaketa:** “hijueloak” ta adar zupatzaileak kendu eta kimen bakanketa egin. Mordoen inguruan dagozan hostoak kendu baina ez larregi eguzki kolpea ekiditeko. Belar mozketak sarri egin. Lan hauek landareen inguruan hezetasun altuko kondizioak ekidin eta **tratamenduen eragintasuna hobetzen dabez**.

LANDAREAREN ORGANUAK ONDO BUSTI BEHARKO DIRA MAKINERIA EGOKIA ETA ONDO KALIBRATUA ERABILIZ. TRATAMENDUA EGITERAKOAN GOGORATU ERABILTZEN DOGUN SALDA KOPURUA MAHASTIAN DOGUN LANDARETZAGAZ BAT ETORRI BEHAR DALA.